**<u>ETENGABE IREKITA DAUDEN KATEGORIETAN IZENA EMATEKO ARGIBIDEAK</u>**

Etengabe irekita dauden kategorietan izena eman ahal izateko titulazioa/espezialitatea eskuratu eta gero, Aldi baterako Kontratazio Zerrendetan masiboki izango diren inskripzio berriak ikusita, hona hemen aintzat hartu beharreko jarraibideak:

1. Eskabidea egiterakoan, **LANPOSTU HUTSEN ZERRENDAN** izena emateko, Arlo Sanitario 1, 2 edo 3 hautatu behar dira, eta **ORDEZKAPENEN ZERRENDAN**, berriz, Zerbitzu Erakunde 1 edo 2. <u>Egin ezean, hau da, Zerbitzu Erakundeak hautatu ez badira, Ordezkapenen Zerrendan izena eman ez duzula joko da</u>.
2. Zerrendak ordenatzeko kontuan hartuko den **data** eskabidea egin deneko data izango da, edo titulazioa/espezialitatea lortu deneko data, baldin eta aipatutako data hori eskabide-data baino beranduagokoa bada. Data bera duten eskabideak, berriz, adinaren arabera ordenatuko dira, 2011ko kontratazio zerrendak arautzen duen Akordioaren arabera.
3. Izena emateko eskabidean egindako **aldaketa oro** idatziz jakinarazi beharko da, helbide honetan:
   Giza Baliabideetako Zuzendaritza, Hautaketa eta Horniketa Zerbitzua (Aldi baterako Kontratazio Zerrendak)
   Araba kalea, 45
   01006 Vitoria-Gasteiz
4. **Zerrendak** abenduaren 31n **itxiko dira**, eta egun horretatik aurrera ezin izango da aldaketarik egin izena emateko eskabidean. Salbuespena: akordioaren hamargarren atalaren kasuak.
5. Izena emateko eskabidearen kopiarekin batera, **dokumentazio hau aurkeztu behar da**:

   *- Nortasun-agiriaren edo Atzerritarraren Identifikazio Zenbakiaren fotokopia konpultsatua.*

   **-** *Kontratazio-zerrendari dagokion lanpostuan jarduteko behar den titulazioaren edo emateko eskubideak ordaindu izana egiaztatzen duen frogagiri edo dokumentuaren fotokopia konpultsatua edo notarioren lekukotza. Atzerrian lortutako tituluak, Espainiako Ministerioak haiek homologatzen edo onartzen dituen erabakiarekin batera aurkeztu beharko dira.*

   *- Lan-esperientzia aitortzen duen jatorrizko ziurtagiria edo horren kopia kautoa, notarioak egina, bertan xehe adieraziz: lan-denboraldi desberdinetan izandako kategoria, lotura juridikoa eta taldea, hasierako datatik (eguna, hilabetea eta urtea) amaierako datara arte (eguna, hilabetea eta urtea). Ziurtagiri horrek dagokion administrazio publikoko organo eskudunek emana behar du izan, eta horrelakoetarako ezarrita daukan ereduari jarraitu behar dio. Dena den, Osakidetzan zerbitzuak egin dituztenek ez dute aurkeztu behar egindako zerbitzuen egiaztagiririk, zerbitzu horiek ofizioz baloratuko baitira.*

   *- Egiaztatutako euskara-tituluaren fotokopia arrunta. Euskara-titulua Osakidetzak antolatutako deialdietan lortu bada edo Osakidetzako Giza Baliabideetako Zuzendaritzak beren beregi baliokidetu badu Osakidetzako hizkuntza-eskakizun gisa, kasu horietan ez da beharrezkoa izango euskara-titulua aurkeztea.*

   Dokumentazioa helbide honetara bidali behar da:

   **Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua**
   **Giza Baliabideetako Zuzendaritza**
   **Hautaketa eta Horniketa Zerbitzua – Aldi baterako Kontratazio Zerrendak**
   **Araba kalea 45**
   **01006 Vitoria-Gasteiz**

**2018KO KONTRATAZIO ZERRENDAK – 4. LEHENTASUNA (2019)**

Kategoria hauetan izena emateko esteka honetan sakatu:

https://lc2018.osakidetza.eus/aLC2018/eus/Login/solX.jsp

| CATEGORIA |
|---|
| FAC. ESP. MEDICO DE FAMILIA |
| FAC. ESP. MEDICO PEDIATRA-EAP |
| ENFERMERO/A |
| MATRONA |

**2014KO KONTRATAZIO ZERRENDAK – 7. LEHENTASUNA (2019)**

Kategoria hauetan izena emateko esteka honetan sakatu:

https://lc2014.osakidetza.eus/aLC/eus/Login/solX.jsp

| KATEGORIA |
|---|
| LAN-OSASUNEKO ERIZAINA |
| OSASUN MENTALEKO ERIZAINA |
| FAK. ESP. ANATOMIA PATOLOGIKOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ANGIOLOGIA ETA HODIOETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. APARATU DIGESTIBOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. KARDIOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. BIHOTZ-HODIETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. KIRURGIA OROKORRA ETA APARATU DIGESTIBOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. AHO ETA AURPEGI-MASAILAETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. KIRURGIA ORTOPEDIKOA ETA TRAUMATOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. PEDIATRIA KIRURGIKOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. KIRURGIA PLASTIKOA, ESTETIKOA ETA KONPONTZAILEKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. TORAXEKO KIRURGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. DERMATOLOGIA MEDIKO-KIRURGIA ETA BENEREOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. HEMATOLOGIA ETA HEMOTERAPIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ETXEKO OSPITALIZAZIORAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. MEDIKUNTZA FISIKOA ETA ERREHABILITAZIOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. MEDIKUNTZA INTENTSIBOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. BARNE MEDIKUNTZAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. MEDIKUNTZA NUKLEARREKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. MEDIKUNTZA PREBENTIBO ETA OSASUN PUBLIKOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. NEFROLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. NEUMOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. NEUROLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. OFTALMOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ONKOLOGIA MEDIKUKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ERRADIOTERAPIA ONKOLOGIKOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. OTORRINOLARINGOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. OSPITALE-PEDIATRIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. PSIKIATRIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. HAURRENTZAKO PSIKIATRIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ERRADIODIAGNOSTIKOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. OSPITALEKO ERRADIOFISIKAKO MEDIKU TEKNIKARIA |
| FAK. ESP. ERREUMATOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. OSPITALEKO LARRIAIAIETAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. UROLOGIAKO MEDIKUA |

**2011KO KONTRATAZIO ZERRENDAK – 10. LEHENTASUNA (2019)**

Kategoria hauetan izena emateko esteka honetan sakatu:

https://lc2011.osakidetza.net/aLC2011/eus/Login/solX.jsp

| KATEGORIA |
|---|
| FAK. ESP. ALERGOLOGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. ANALISI KLINIKOEN MEDIKU TEKNIKARIA |
| FAK. ESP. BIOKIMIKA KLINIKOKO MEDIKU TEKNIKARIA |
| FAK. ESP. ZAINKETA ARINGARRIETAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. LARRIAIALDIETAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. GAIXOTASUN INFEKTSIOSOETAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. EPIDEMIOLOGIA KLINIKOKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. LANEKO MEDIKUNTZAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. GSU-KO MEDIKUA |
| FAK. ESP. MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIAKO MEDIKU TEKNIKARIA |
| FAK. ESP. NEUROKIRURGIAKO MEDIKUA |
| FAK. ESP. IKERKUNTZAKO UNITATEKO MEDIKU TEKNIKARIA |

(1) Osakidetzako web-era sartzeko, tekleatu zure nabigatzailean: http://www.osakidetza.euskadi.net




(2) Sakatu “Profesionala” –> “Giza Baliabideak”




(3) Sakatu “Hautaketa eta horniketa” –> “Aldi baterako kontratazioa” –> “Kontratazio-zerrendak 2011”



(4) Hautatu hizkuntza




(5) Sakatu "Eskabidea"




(6) Adieraz ezazu identifikazio-dokumentu mota, idatzi zure identitate-zenbakia letra eta guzti eta hautatu izena eman nahi duzuneko kategoria.



(7) Tekleatu zure pasahitza. Erabili 2008ko EPErako erabili zenuen pasahitza bera, edo bertan parte hartu ez bazenuen erabil ezazu 2008ko kontratazio-zerrendetakoa. Aurreko pasahitza ez badaukazu, aplikaziora lehen aldiz sartzean adieraziko zaizun pasahitza erabili beharko duzu. Pasahitza gogoratu beharko duzu etorkizunean kontsultak egin eta eskabidea aldatu ahal izateko




(8) Sakatu “Eskabide egin” laukitxoan



(9) Osatu 1. urratsa zure datu pertsonalak beteta eta gero sakatu “Jarraitu”




(10) Bakanteen zerrendan (interinitateak) izena emateko, hautatu osasun barruti bat, bi edo hirurak.



(11) Ordezkapenen zerrendan izena emateko, hautatu gutxienez Zerbitzu Erakunde bat. Gehienez 2 aukera ditzakezu.

Zerbitzu Erakunde bakoitzean 2 hautaketa-mota egin ditzakezu:
a) Osoa. Erakunde bateko zentro guztiak aukeratzen dituzu.
b) Partziala. Erakunde bateko zentro batzuk bakarrik aukeratzen dituzu, eta gehienez 1etik 5era aukera ditzakezu..

**Osoa**: Erakunde bateko zentro guztiak aukeratzeko, hautatu Erakundea bakarrik. Ez duzu pasatu behar “Eskainiak” ataleko zentro bat ere “Hautatuak” atalera”.



**Partziala**: Erakunde bateko zentroren bat bakarrik aukeratzeko, hautatu Erakundea eta pasatu zuk nahi dituzun zentroak (gehienez 5) “Eskainiak” ataletik “Hautatuak” atalera. Horretarako, erabili pantailaren eskuineko aldean dauden botoiak, goranzko eta beheranzko geziak dituena.




Jarraian, markatu “Zinpean edo promes eginez adierazten dut” laukitxoa eta sakatu “Baieztatu”



Agindutako pausu guztiak ongi jarraitu badituzu, eskabidea automatikoki erregistraturik gelditiko da Osakidetzako sistema informatikoan, eta une horretan bertan inprimatu ahalko duzu inskripzioeskabidearen egiaztagiria, baina hori zuretzat da.

Hala ere, inskripzioa egiteak ez du esan nahi kontratazio-zerrendetan onartuta zaudenik jada. Horretarako, baldintza guztiak betetzeaz, eta titulazio akademikoa ematea Osakidetzara.

Gainera, euskera eta kanpoko esperientzia ere bidali behar dizkiguzu.